

# IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Kaixo herrikide!!!**

Hemen datorkigu urteko bigarren alea, uda-berrikoa.

Azken bi hilabete hauetan herrian zein herritik egin diren ekintzei buruzko informazioarekin gatoz. Asteburu-pasa, manifestazioa, kultur ekin-tzak...

San Isidro eguna gainean dugunez, Udaberri-Jaiko egitaraua bertan duzue ikusgai.

Oraingo honetan, Joxe Mari Urangarekin

elkartu gara bere sokatirako urteetako abenturak zuei kontatzeko, Igeldotik hasi eta Europan zehar ibilia baita.

Bestalde, gogorazi nahi dizuegu diseinu aldaketarekin jarraitzeko zuen laguntza behar dugula eta, horretarako, zuen izen-proposamenak biltzeko zerrenda Txapelan jarria dagoela edo *igeldokoorria@gmail.com* helbidera idazteko aukera ere baduzuela.

Gustatuko zaizuelakoan... ON EGIN!

# Parketarrak badatoz!

Donostiako Udaleko Euskara zerbitzuak, Igeldoko Euskara Batzordeak, Herri Kontseiluak eta Urtxintxak "Parketarrak" izeneko egitasmoa berriz jarri dute martxan. Kalean eta parkeetan euskararen erabilera handitzea du helburu.

## PARKETARRAK

Horretarako, maiatzaren 4, 11, 18 eta 25ean, jolas-dinamizatzaileen laguntzaz jolas-saioak burutuko dira Igeldoko Plazan. Hauek dira bi plan-gintzak:

**kalean euskaraz jolasteko egitasmoa**

**Maiatzak 4, 11, 18 eta 25 asteazkenetan**




**ZABU ZIBU:** 3-5 urte bitarteko haurren familientzat, IGELDOKO PLAZAN 16:30-17:30. Eguraldi txarra egingo da, FRONTOIAN.  
**TXIRRINTXON:** 6-9 urte bitarteko haurrentzat, IGELDOKO PLAZAN 17:30-18:30. Eguraldi txarra egingo da, FRONTOIAN.

**1. ZABU ZIBU:** 16:30-17:30era 3-5 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian egingo da. Helburua euskaraz jolastu ahal izateko tresnak eskaintzea da, beraz, behar-beharrezkoa da haurrak guraso edo helduren batekin etortzea.

**2. TXIRRINTXON:** 17:30-18:30era 6-9 urte bitarteko haurrentzat. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian egingo da.

# Ostegun eroak!

Pasa den martxoan, aurreko alean adierazi bezala, hilabeteko azken ostegunetako pintxo-pote berezia hasi zen. Jada bi ostegun izan dira eta gogoratu hemendik aurrera ere aukera izango duzuela bertaratzeko. Animatu eta gozatu giroaz!



# Emakumeen eguna

Urteroko legez, martxoaren 12an herriko hainbat emakume bildu ziren Mendizorrotz jatetxean, euren eguna ospatzeko asmoz. Giro ederrean afaldu eta gero, saskien zozketa izan zen eta Arantxa Arruti, Aitziber Alzua eta Pilar Arrilaga izan ziren sarituak

# Hasi dira pilota-txapelketak

Martxan da Iker Artanoren omenez jokatzen den urteroko pilota-txapelketa eta pilotariak hasi dira lehen partiduak jokatzen. Aurten 3 txapelketa jokatuko dira; palaz mazizarekin (5 bikote), palaz teniseko pilotarekin (4 bikote) eta eskuz (6 bikote). Antolatzaileek hala erabakita, astero partida bat jokatu beharko da eta bikote bakoitzak ordezkari bat edukitzeko eskubidea izango du.


# Abian prozesua

Hilabeteetako eztabaidaren ondoren, amaitu da Ezker Abertzalearen Abian prozesua. Apirilaren 16ko asteburuan egin ziren prozesuko azken batzarrak eta bertan eztabaidatu eta bozkatu ziren jasotako emendakinak.

Hirugarren eta azken fasean, 284 batzar egin dira Euskal Herri osoan, 3059 lagunek parte-hartu dutelarik. Igeldon Apirilaren 14an egin zen batzarrak.

Batzar hauetan eztabaida nagusia eragin duen gaia antolaketari dagokiona izan da.

Eztabaida-prozesuaren amaiera irudikatuko duen ekitaldi nagusia maiatzaren 7an egingo da.



# XXXIX. Lapa saria

Dagoeneko amaitu da apirilean zehar jokatutako lapa-saria. Sailkapen nagusian lehen lau bikoteak honakoak izan dira:

1. Aitor eta Migel
2. Ramontxo eta Onditz
3. Jon eta Mikel
4. Luisen eta Laxaro



# Ieltxo: Udaberri, ekintza berri

**bertso paper lehiaketa**

1. maila: 16 urteko beharokoak  
2. maila: 16 urteko gorakoak

BERTSO KOPURUA - NEURRIAK ETA GAIA  
Gaia "Igeldo". 3na bertso eta neurri librean

NON ETA NOLA AURKEZTU  
Lanak lbasaurako buzoien edota bulegoan bertan aurkeztu daitezke. Bertsoak ezinez sinatuta egongo dira eta adina adierazita. Ondoren ezzenak eta san abizenak dituen gutunazal libi bat aurkeztu beharko du egileak.

AURKEZTEKO EPEA  
Aurkezteko azken eguna Maiatzaren 11a

UDAR FESTA BARNE

Aurtengo zinejanen zikloa amaitu da dagoeneko. Jende ugari bildu du eta Ieltxoren izenean eskerrik beroenak bertan parte hartu duzuen guztiei. Harrera ona ikusita datorren urtean ere antolatzeko asmoa erakutsi dute.

Udaberri jaiari begira, bertso-paper lehiaketa antolatu du. Maiatzaren 11ra arte duzue parte hartzeko epea. Berau antolatzeko, jasotako laguntza ere eskertu nahi die elkarteak herritarrei.

Aurrera begira ideia berririk baduzue edo zer-bait nahi izanez gero jarri harremanetan:

[ieltxokulturelkartea@ymail.com](mailto:ieltxokulturelkartea@ymail.com)

# SUTEEN AURKAKO PROTOKOLOA

Herri Kontseilua, herritarrekin, Donostiako Udaleko hainbat teknikarirekin (segurtasun babesekoak partaidetzakoak), udaltzaingo arekin eta suhiltzaileekin elkarlanean, protokolo berria lantzen hasi da. Honen helburua, larrialdietako zerbitzuek Igeldo hobeto eza-gutzea da, azkeneko sutearen ondoren arlo honetan gabezia handiak ikusi baitziren. Horretarako, bideen egoera, ur hartzeko puntuak... ikuskatzen ari dira.

Elkarlan honen harira, protokoloan honako puntu hauek nabarmendu dituzte:

Sua pizteko (belarrak, edo sasiak erretzeko...) baimena eskatu behar da. Horretarako, lehenik suhiltzaileengana jo, bertan paper bat bete eta N.A.N / D.N.Iaren fotokopia batekin KODE bat emango da. Hortik aurrera, sua piztu nahi denean, suhiltzaileei telefonoz deitu eta nork bere KODEA eman beharko du eta sua non egin nahi den adierazi, legezkoa den ala ez ziurtatzeko.

# Eskolako baratza: ilusioak zapuztuta

Igeldoko Eskolako Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hurrek baratza egitea erabaki zuten ikasturte hasieran. Gogotsu jarri ziren martxan lurra prestatzen, inguruko baratzak ikusteko txangoak eginez, haziak erein eta landareak landatuz...

Baina horrelako ilusio handiz lanean aritu ondoren, jada bitan, landareak aterata eta barazkiak faltan direla aurkitu dira. "Bidegabekeria da batzuen lana eta ilusioak inongo arrazoirik gabe modu horretan zapuztea. Guztion lana da gure ingurunea eta eskola zaintzea, horregatik gure nahia da horrelakorik berriro ez gertatzea. Zain dezagun gurea dena, gure eskola, gure herria, guztiona eta guztiontzat da eta. Elkar hartuta ekidin dezagun gure herria kaltetuko duen edozein ekintza gertatzea" adierazi dute.

Bestalde, bi hitzordu interesgarri antolatu dituzte eskolan:

**Maiatzak 12:** Hezkidetzaren inguruko hitzaldia: *Neskak eta mutilak berdin hezten ditugu?*

Hizlaria: Amelia Barquín; Ordua: 16:30etan

**Maiatzak 18:** *Sare sozialak eta teknologia berriak;* Ordua: 17:00tan

Animatu eta parte hartu! (Haurrak zaintzeko zerbitzua egongo da.)



## Din-din eta San Pedro jaiak

Pasa den martxoaren 6an, urteko batzarra egin zen. Aurreko urteekin alderatuz, parte-hartzea handiagoa izan zen. Bertan, juntaren aldaketa onartu, gai ezberdinak eztabaidatu eta hainbat erabaki hartu ziren, esaterako, urtero herriko festetarako diru-kopuru bat ematea. Aurten herri bazkari-rako erabiliko da kopuru hori eta Din-din elkarteak orduratu-ko da antolaketaz.

Bestalde, gogoratu elkarteak maiatzaren 15ean eta ekainaren 27tik uztailearen 4ra itxita egongo dela herriko ospakizunak direla eta.

## Asteburu koloretsua

Apirilaren 15etik 17rako asteburua Larraulen pasa zuten Igeldoko hainbat hurrek, Kixmi Aisialdi Taldearekin.

Dantza, kantu, jolas eta kolorez beteriko asteburua izan zen eta aisialdi taldeak abentura hura posible izan zedin parte hartu eta euren laguntza eskaini zuten haur, guraso eta begiraleei eskerrak eman nahi dizkie.

Eskerrik asko!



# Herri txiki, altxor handi!!!



Apirilaren 23an, manifestazioa antolatu zuen Itsas Aurre elkarteak, "herri txiki, altxor handi" lemapean. Gipuzkoako udalerrri txikiei (2500 biztanletik beherakoei) deialdia luzatu zitzaien manifestua babesteko eta bertaratzeko. Manifestu horretan, udalerrri txikien aldeko alda-

ria egin zen, eta bide batez, adierazi nahi izan zen Gipuzkoako udalerrrien erdia baino gehiago 2500 biztanletik beherakoak direla, azken foru arauaren zentzugabekeria salatuz. Herri txikien aldetik jasotako babes izugarria izan zen eta Itsas Aurrekoen ustetan, hunkigarria eta oso garrantzitsua. Aurrerantzean ere elkarlanerako bide bat izan daitekeela azpimarratu dute.

Udalerrri hauek izan ziren babes adierazi zutenak: Oresa, Gaztelu, Orendain, Beizama, Arama, Mutiloa, Elduain, Zerain, Leintz-Gatzaga, Abaltzisketa, Alkiza, Hernialde, Aduna, Altzo, Leaburu, Gabiria, Ikaztegieta, Bidania-Goizatz, Ezkio, Itsaso, Berrobi, Itsasondo, Errezil, Aizarnazabal, Amezketa, Berastegi, Elgeta, Segura, Zegama, Legorreta, Asteasu, Zaldibia, Ataun, Alegia, Antzuola, Idiazabal.




## Erraustegiaren mehatxuari herritarren erantzuna

Zubietan erraustegiaren proiektua berrabiatu dela eta, Igeldon ere herritarren artean kezka sortu da eta gaia lantzen hasi dira. Batetik, inguruko herrietako hainbat familia biltzen dituen GURA S.O.S ekimena sortu da. Maiatzaren 7an izan zen aurkezpen-ekitaldia Lasarten eta Igeldotik ere hainbat familiak hartu zuten parte. Erraustegiak seme-alabengan izan ditzakeen eragin kaltegarriak kezkatzen ditu, bereziki, plataformako partaideak. Beraien helburua erraustegia ez egitea da eta horretarako informatu eta informazioa jasotzeko eskubidea aldarrikatu eta martxan jartzen ari dira.

Bestetik, herriz herri ere hedatzen ari dira errausketaren aurkako plataformak. Igeldon, herritar talde bat kezkatuta dago eta gaia lantzeko asmoa du, horretarako maiatzaren 15ean mahai bat jarriko dute giza-katerako konpromezuak salgai jarri eta informazioa zabaltzeko. Maiatzaren 19rako hitzaldi bat antolatu dute herrian. Bertan, 2 hizlarik hartuko dute parte: batek erraustegiaren proiektua zertan den azalduko du eta mediku batek erraustegiak osasunean izango dituen eraginetan sakonduko du.

Erraustegiaren aurkako eta osasunaren aldeko borrokan, hitzordu nagusia maiatzaren 29ko giza-katea izango da. Kateak Onkologikoa eta Gipuzkoa plaza lotuko ditu, 11:30ean hasita. Bidea osatzeko 5.000 pertsona inguru beharko dira. Errausketaren Kontrako Mugimenduak iragarri duen leloa "Burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren herrian ere nahi" da.



# SAN ISIDRO UDABERRI JAIA

## Maiatzak 14, Larunbata

**17:00 Patin Roller**

**19:00 Arkupeko Pilota Txapelketa**

**21:00 Barrikotea** kultur etxean eta bertso paper lehiaketako sari banaketa

\*Txartelak bertan salgai 12 €-tan

## Maiatzak 15, Igandea “San Isidro Eguna”



**10:30 Azoka** bertako produktuekin

**11:00 Asto karrera**

**11:30 Toka**

**12:00 Haurrentzako ibilaldia** Kixmik antolatuta

\*Goiz osoan zehar barra irekiko da pintxo eta guzti eta Bertsolariek plaza girotuko dute

**14:00 Bazaria** Itsas-Aurre kultur etxean **Ion Maia** eta **Alaia Martin** bertsolariekin eta

**Alkorta anai-arreba** trikitilariak girotuta

\*Txartelak eskuragarri Txapelan maiatzaren 12ko eguadiarte 25 €-tan helduak eta 5 €-tan haurrak

\*Haurrentzako menu berezia izango da, eta bazkalostean haurrentzako jolasak izango dira Kixmik antolatuta

**18:30 Erromeria Leire** eta **Amaia**-ren eskutik



# "SOKATIRAN GABILTZAN GEHIENOK, SOKAKO "YONKI" BATZUK GARA"



Joxe Mari Uranga, Auzolan-Igeldo taldearekin Irlandan (1999)

*Otsailaren 18tik 21era jokatu zen Volendam-en (Holandan) mundu mailako goma gaineko sokatira-txapelketa. Bertan izan zen Joxe Mari Uranga Ibarako taldearekin. Txapelketa hau aitzakiatzat hartuta, berarekin elkartu gara bere ibilbideaz eta sokatira munduaz gehiago jakiteko asmoz.*

## Noiz hasi zinen sokatiran?

Ni 16 urte egitekotan nengoela hasi nintzen, orain dela 21 urte inguru. Hala ere, Igeldon taldea aurretik hasita zegoen, urtebete edo... Nik uste, 1993 inguruan urte inguruan osatu zela sokatira taldea Igeldon. Hiru-lau bat urte indarrean ibili ginen, baina pixkanaka kide gutxiago ginela eta Astigarragako Auzolan sokatira taldearekin elkartu ginen, haiek ere gutxi zirela eta.

## Orain Ibarako taldean aritzen zara, baina 21 urteko ibilbidean non gehiago aritu zara?

2004/2005 denboraldia bukatzean, Igeldoko beste kideek utzi egin zuten eta nik bakarrik jarraitu nuen. Denboraldi batean zehar Auzolan bezala aritu ginen. Gerora, Ibarako mutil batzuk etortzen hasi ziren Astigarragara eta pixkanaka Ibarakoak geroz eta gehiago zirenez, Ibaran hasi ginen entrenatzen eta azkenean Ibarra taldea sortu genuen. Orain dela zortzi bat urte izan zen hori. Aurrena mutilen taldea osatu genuen eta gero nesken taldea osatu zen, urtebetera edo.

## Zein modalitatetan aritu izan zara?

Beti goma gainean aritu naiz, baina orain dela bi urte, lurgaineko modalitatean parte hartu genuen lehendabiziko aldiz. Parte hartzeagatik apuntatu ginen, batez ere. Aurten ere parte hartuko dugu; Apirila bukaeratik abuztura bitartekoa izan ohi da denboraldia.

## Eta zer moduz lur gainekoan? Moldatzen al zarete?

Ibarako taldea oraindik oso "berde" dago lurreko modalitatean, parte hartzeagatik apuntatzen gara, aspirazio handirik gabe. Gainera, oso ezbedinak dira goma gainekoa eta lurrekoa. Goma gainean urte asko pasa arren, lurrekoan askotan ezinean aritzen zara. Ez dauka zer ikusirik, tiratzeko moduan, teknikan... beste mundu bat da.

## Eta goma gaineko denboraldia noiz izaten da?

Goma gainean, lehendabizi lau kidekoa izaten da urritik abendura bitartean. Hau beroketa moduan hartzen dugu, preparazioa... baino askotan maila gehiago izaten da zortzikoan baino, errazagoa baita laukote indartsua osatzea. Krixton gerra izaten dugu! Ondoren, abendutik martxora bitartean zortzi kidekoa jokatzen dugu. Hemen nesken taldeak zein mutilenak parte hartzen dute. Eta zortzi kideko txapelketako azken asteburuan mixtoa jokatzen da.



## Ibarako taldean, zein da zure postua egun?

Azkeneko bi urtetan entrenatzaile moduan aritu naiz mutilen taldearekin. Lehengo entrenatzaileak utzi egin zuen eta baten batek aritu behar eta ni hasi nintzen. Orain taldeko "kabroia" naiz. Entrenamenduak prestatzen dituena, serieak eta halako ariketak prestatzea da nire ardura...

Bestela, azken urteetan atzeko postuan tira izan dut gehienetan, baina beste postuetan ere tira izan dut.



## Zer da sokatiran gogorrena?

Sokatirako txarrena, pisua jaitsi beharra izaten da, hori izaten da zailena... gainera geroz eta gehiago eskatzen da. Urtetik urtera txapelketek gehiago argaltzea eskatzen dute, kontrarioak geroz eta mutil handiagok dira eta zuri ere azkenean hori eskatzen dizu txapelketak... Orain dela 15 urteko 600kg-ko talde bat orain "enano" bat izango litzateke. Aurtengo txapelketako 600kg-ko finaleko gure taldeko batez besteko altuera 1.86cm-koa izan da 75kg-tan. Urtetik urtera geroz eta okerrago eta mundialetara joaten bazara, are okerrago.

## Mundu mailako txapelketak ere izaten dira, goma gainekoa aurtengo otsailean izan da Holandan, ezta? Eta Euskal Herritik zein taldek hartu duzue parte?

Bai, hori da. Munduko txapelketak bi urte behin izaten dira goma gaineko modalitatean. Euskal Herritik aurten; Abadiño, Badaiotz, Berriozar, Beti Gazte, Gaztedi, Murueta, Sokarri eta Ibarra izan gara.

## Eta zer moduz moldatzen zarete mundu mailako txapelketan?

"Orain dela 15 urteko 600kg-ko talde bat orain "enano" bat izango litzateke."

## Lortu ahal duzue dominarik?

Goma gainekoan, eskoziarrak eta txinatarak izaten dira indartsuenak eta 3. postuaren lehian berriz, euskaldunak eta irlandarrak aritu ohi gara. Hala ere, mundu mailan lurreko modalitatean afizio gehiago dago. Talde gehiago izaten dira, nazio gehiagok parte hartzen dute. Lurrekoan suitzarrak izaten dira onenak mundu mailan. Euskaldunek ere destakutzen dute, baina lur gainekoan talde gutxi aritzen dira.

Kluben arteko txapelketan, emakumeen taldeak 540 kg-tan brontzea lortu zuen. Eta 600kg-ko mixtoan zilarra. Nazioen arteko txapelketan, 600kg-ko mixtoan ordezkatu genuen Euskal Herria eta brontzea lortu genuen. Txapelketako lehen bi egunetan Kluben arteko lehia izaten da eta ondorengo egunetan Nazioen artekoa

## Aurten jokatu duzue lehendabiziko aldiz Euskal Herriko selekzio moduan, zer sentrazio?

Poza sentitzen da, Euskal Herria bezala jokatzeko aukera izan dugula eta. Urte askotan zehar egindako lana izan da eta asko kostatakoa. Hala ere, lur gaineko modalitatean 2014an jokatu zen lehendabiziko aldiz Euskal Herria bezala ofizialki, Estatu



Batuetan jokaturako mundialean. Goma gaineko mundiala pasa ostean onartu baitzen selekzio moduan ofizialki.

## Nola antolatzen duzue Euskal Herriko selekzioa?

Basque Country izenenarekin jokutzen du Euskal Herriko txapelketan pisu horretan irabazi duen klubak. Edo klub horren ardura izaten da mundu mailako txapelketarako pisu horretan taldea osatzea. Batzuetan beste klubetako kide batzuk ere sartu ohi dira, ardura duen klubak erabakitzen duenaren arabera. Ibarrek 600kg mixtoan ordezkatu zuen Euskal Herria. Talde hori osatzeko ardura zuen eta, Ibarako partaideez gain, Gaztediko bi neskek eta Abadiñoko mutil batek parte hartu zuten.

## Auzolan-Igeldon aritzen zintenean ere parte hartu izan zenuten mundu mailako txapelketetan, ezta?

Bai, garai haietan ere fuertea ibili ginen, Euskal Herriko txapelketetz gain, mundu mailakoetan parte hartuz. (Irlanda, Holanda, Eskoziak...) Autobusean 12/14 orduko bidaiak eginez, literako autobus batean Holandara... 1997an Gasteizen jokatu zen mundu mailakoa eta orduan, nik ez, baina igeldotar batzuk parte hartu zuten Auzolanekoekin. Geroztik, Auzolan-Igeldo bezala parte hartzen genuen.

## Lehen sokatiraren gauzarik gogorrena pisua kontrolatu beharra dela aipatu diguzu. Nola izaten da pisatzearen kontua?

Euskal Herriko txapelketan, tiraldia baino hiru ordu lehenago egiten da pisatzea. Mundu mailan berriz, lehen ez zen egiten baina orain dela sei urtetik, txapelketa ostegunetik igandera bada, asteazkenean soilik egiten da pisatzea. Asteazkenerako talde guztiak han izaten dira eta orduan



osaten dira kide guztien fitxak. Gauza harri-garriak eta beldurgarriak ikusten dira. Talde batzuk hotela saunarekin hartzen dute eta 12/16 ordu saunan pasata zuzenean pisatze- ra joaten direnak badira... egun batean agian 11kg argalduta. Erokeria bat da, izugarriko koadroak ikusten dira (zutik egon ezin eta...), azkenean urteren batean ezbeharren bat gertatuko da. Horretan okerrenak irlandarrak eta eskoziarrak ere bai izaten dira, erotuta daude!!! Eta gero bi edo hiru egunen hamar bat kilo hartzen dituzte eta krixton mutil pusken kontra aritu behar txapelketan.

Ez da errealia. Eta gorputzari tratu hori ematea ere ez da batere ona. Hori aldatu beharra dago, bestela azkenean baten bat akatuko da.

## Zein neurritan hartzen duzue parte?

Ibarrek, Euskal Herriko txapelketan, mutilen taldeak pisu guztietan parte hartzen du. Talde gehien dauden neurria, 600kg-koa izaten da eta hau izaten da "kategoria" handiena duen pisua. Nesken taldeak, berriz, 500kg eta 540kg neurritan tiratzen du.


## 21 urtean jo eta su aritzeko, zer ematen dizu sokatirak?

Askotan galdetu didate eta berez ez dauka esplikaziorik soka ibili nahiak. Gose asko pasa beharra, entrenatzera joateko astean kilometro pila egin behar, gauero 11etan etxeratu, errekonozimendurik bat ere ez... Baina sokatiran gabiltzan gehienok sokako "yonki" batzuk gara.

Sudokua

1		8	5			7	9	4
	9	4	1	7	3		2	
7								
	5		2	3	6			8
4					8			
		2		1	9			
		1						9
2	7	9			1	6	4	
3								

Jeroglifikoa



Non bizi da Ainara?

7 ezberdintasunak



AURREKO ERANTZUNAK

JEROGLIFIKOAK


Lapabidera  
Tximistarritik

SUDOKUA

4	1	2	5	7	9	2	6	3	8	9
3	8	7	1	9	4	5	2	6		
6	9	5	2	3	8	7	1	4		
8	7	1	4	6	3	2	9	5		
5	3	4	9	2	1	6	7	8		
2	6	9	8	5	7	3	4	1		
7	5	6	3	4	9	1	8	2		
9	3	8	6	1	2	4	5	7		
1	2	4	7	8	5	9	6	3		

7 EZBERDINTASUNAK





## AGENDA

<b>Maiatzak 12</b>	Hezkidetzaren gaineko hitzaldia, eskolan 16:30ean
<b>Maiatzak 14-15</b>	Udaberri jaia-San Isidro
<b>Maiatzak 18</b>	"Sare sozialak eta teknologia berriak" hitzaldia, eskolan 17:00etan
<b>Maiatzak19</b>	Erraustegiaren buruzko hitzaldia, kultur etxean 19:30ean
<b>Maiatzak 29</b>	Erraustegiaren aurkako giza-katea, Onkologiko-Gipuzkoa plaza, 11:30ean
<b>Ekainak 22</b>	Haurrentzako tailerra (Dssirez taldeak antolatuta), plazan 17:00etan
<b>Ekainak 23</b>	San Juan bezpera
<b>Ekainak 29</b>	San Pedro eguna
<b>Ekainak 30</b>	Haurren eguna
<b>Uztailak 2</b>	Santa Ixabel eguna
<b>Uztailak 3</b>	San Pedro jaien amaiera
<b>Uztailak 5</b>	Udalekuen hasiera (Kixmi Aisialdi Taldearekin)

## OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak uztailean, urrian eta abenduan izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



**IGELDOKO  
HERRI  
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea  
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo  
Tfona. 943 313 030  
Emaila: igeldokoorria@gmail.com



Laguntzailea **Donostiako Udala**